

Goi

Goierritarra aldizkaria

412 zenbakia 2011ko abenduak 16



lasterketak.com
SARITUA

EUSKARA LANABES



ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

EMW3

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo CXTÉ ROMEO GIGI



faktore



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea


BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



TTI

TTA

T 943 88 00 00
Kale Nagusia, 18
BEASAIN



Eguneko menua
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Menuak enkarguz



Eneritz Gorrotxategi

Atzera bueltarik ez duen egoera berri honetan, bozken bidez hitza herritarrek dugula esaten zaigu; hitzaren erabilpena eskatzen zaigu. Orain hitzaren bideari soilik ekinda, ukazioa etorri da ordea: hauteskundee-tan ateratako emaitzak ikusi arren, hitzari uko egiteko gaitasuna izan dute. Espainiako diputatuen Kongresuan gainera, talde parlamentarioa izatea ere eragotzi egin nahi dute. Tristea benetan.

Aro berria, zaharraren pare; euskaldunek orain ere bidea nekez, trabak gaindituz, talde indarra batuz eta auzolanari eutsiz egin beharko dugu aurrera. Ideia ezberdinak izatea badirudi ez dela zilegi. Ardi beltz gisa sentiarazi nahi gaituzte; baina dirudien ez dakite ardi beltza edo zuria izan, balio, berdin-berdin balio duela. Ezberdintasun horrek ematen dio gainera nik uste aberas-tasuna.

Ardiaren koloreari baino niri atentzioa eman didan kolore aldaketa ere aipatu nahi nuke: gorritik urdinerako pausua egin dute Euskadiko Sozialistek; ohartu al zara Jon? Orain arte, PSOE-ren kolorea, gorria izan dela esan

Zeinek jantziko dik bakearen txapela?,

Horixe duk daukagun buruhaustea,

beste zereginik izango ez bagenu bezala.

daiteke; kanpaina honetan ordea erabili duten kolore korporatiboa urdina izan da. Mitinetan atzean izan duten kolorea, urdina izan da. Zer ote da, PP-ren urdinerantzko jauzia txikiagoa izan dadin? Ez dut ulertzen.

Eta urdina aipatu dudanean zera etorri zait burura; odol urdina. Zer pasatzen ote da egunotan Espainiako erret etxean? Harritzekoa izango da, orain ere euskaldun bat, beno, euskal herrian jaiotako bat dago pastelaren erdi-erdian. Zer pasatzen da Urdangarinekin? Akaso Urdangarin bera krisiak harrapatu aurretik formula magikoaren bila arituko zen. Krisitik ateratzeko formula ez da ez hauteskontzietatik aterako. Kutxa horiek ez dute formula magikorik. Magoren batek bestela, egina zuen honez gero erakustaldi miragarriren bat. Ez zaizu iruditzen?

Nolakoak diren bizitzaren paradoxak! Espainiako

Diputatuen Kongresua sekula ezagutu dugun koloretsuena geratu da; hain justu ere, guztien artean dauden ezberdintasunak geroz eta txikiagoak diren gizartean. Denok krisitik irten nahi, eta denok ondo bizi nahi. Hori bai; formula ezberdinak omen daude, eta baita nazio identitate eta ikuspegi ezberdinak ere. Ez dut hori ukatuko. Baina gizarte ustez plural hau, funtsean oso homogenea ikusten dut. Kolore ezberdinak estetikan (alderdiek ez bezala), baina korrante berbera bizimoduan.

Eta guztia biribiltzeko, gizakiak berezko dituen eta eguneroko praktikan jartzen ditugun kontraesanak. Adibide berezi bat: gure goierri-garaitar dugun Urdangarin jaun txit ondraduak Amaiurreko Gipuzkoako diputatu batekin jokatu zuen Espainiako eskubaloi selekzioan.

Eta beste adibide bat: azaroaren 11n Martin Garitano Diputatu Nagusia Igartza jauregian izan genuen Aldundiaren aurrekontu proiektua aurkezten. Guztira 100 lagun inguru elkartu ginen hari entzutera. Joan den urteko

Joxepa, zorionekoak gu!

bizi dugun aro hau bizitzeko aukera

dugulako. Halaxe sentitzen dinat.

otsailean, Markel Olano orduko Ahalduen Nagusia etorri zen Beasaina beren proiektuak aurkeztera. Orduan ere baziren 100 lagun inguru. Baina gauzak zer diren! Bietan egon ginenak esku bateko hatzekin kontatzea izango genukeela uste dut. Nonbait aurreko legealdian foru gobernuaren eginkizunekin oso kezkatuta zeuden goierri-tarrak orain "pasotismo foralean" erori dira; eta orain oso "foru arduratsuak" direnak orduan ez zuten halako kezkarik.

Nire buru txiki honek ezin ditu horrelakoak konprenitu. Baina seguruenik koloreetan aditu den estrategaren batek jakingo luke nik udazkeneko kontraesan moduan ulertzen ditudan kontu horiek esplikatzen. Eta bestela kolorea alda-tu eta listo!



Ion Muñoa

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Nazio Batuen Erakundeak, 1948an definitu zuen, estatu independentea eratze edo bere buruari beste eraketa politiko bat emateko, herriek duten erabakitze eskubidea



Andoni Sarriegi Eskisabel

Goierriko Nazioen Mundua: Euskal Herriak duen erabakitze eskubidearen alde

Aurrekoak aurreko, duela lau urte inguru hasi zen gorpuzten Idiazabalen gerora Goierri Nazioen Mundua-World of Nations izenez ezagutzea eman den mugimendua. Mugimendu horrek, munduan estaturik ez duten nazioek beren etorkizuna bere erabakitze duten eskubidea aldarrikatzen eta defendatzen du. Euskal Herriaren kasuan, noski, Euskal Herriak berak bere etorkizuna erabakitze duen eskubidearen alde dihardu. XIX. mendean naziotasunaren kontzeptua garatu ondoren, 1919an sortutako Nazioen Elkarteak bere egin zuen autodeterminazio-printzipioa eta II. mundu-gerraren ondoren 1945ean sortutako Nazio Batuen Erakundeak, 1948an, bere Kartaren 55. artikuluan definitu zuen, estatu independentea eratze edo bere buruari beste eraketa politiko bat emateko, herriek, nazioek, duten erabakitze eskubidea. Gero, 1976an, Aljerreko "Herrien Eskubideen Deklarazioak" berretsi egin zuen eskubide hori. 1990ean CONSEUK (Europako Estaturik Gabeko Nazioen Konferentzia), "Herrien Eskubide Kolektiboaren Deklarazio Unibertsala" onartu zuen Bartzelonan eta Aljerrekoa gainditu egin zuen puntu nagusi batzuetan.

Gurean, Itsasondan (Goierri), 1931-04-18an, Udalak Autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapena egin zuen Euskal Herriarentzat. Bestalde 1990-02-15ean EAEko (Euskal Autonomia Erkidegoko) Eusko Legebiltzarrak Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidearen aldeko erabakia onartu zuen gero garatzeko ezer ez egin arren.

Beraz, ez da kapritxo kontua Goierriko Nazioen Mundua (GNM) izeneko mugimenduak aldarrikatzen duena eta Goierriko udal guztiek 2010. eta 2011. urteetan zehar mozioak onartuta beren egin dutena; nazioartean erabat onartuta dagoen herrien eta nazioen oinarritzeko giza eskubidea da.

Eskubide-aldarrikatze hori, azken lau urteotan, idiazabalداررrek herrian lantzetik Goierriko herri guztietan eragina izatera igaro da. Prozesu horretan garrantzi berezia izan zuten:

- ✓ Eskoziara, Highlands lurraldera, egindako bi bidaiak (2008-03-19tik 26ra eta 2009-07-17tik 22ra) eta han eskoziarrek inuritutako topaketek eta
 - ✓ Kataluniara, La Bisbal d'Empordara eta Bartzelonara egindakoak (2009-04-10etik 12ra eta 2010-02-26tik 28ra).
- Gero, Goierri zehar hedatzen hasi zen ekimena:
- ✓ Beasainen ekitaldi bat egin zen 2008-06-07an.

- ✓ Idiazabalen batzarra egin en 2009-12-19an, Goierriko herri askotako partaideekin.

Geroztik, ekimenak Goierriko hedadura izan du, gehiago edo gutxiago antzeman arren. Batzar hartan, 2010. urterako ekimenak aipatu ziren, batez ere autodeterminazio-eskubidearen ideia Goierri zabaltzeko ekintzak eta kataluniarren eta eskoziarren etorreren programazioa.

2010-03-13an eta 14an, kataluniarrak Idiazabalen izan ziren. Ondoren, mugimenduaren eta ideien aurkezpenak egin ziren Goierriko hainbat herritan. Gero, *Erabakitze eskubidearen aldeko manifestua* prestatu zen eta adostasun-ekitaldiak egin ziren:

- ✓ 2010-05-22an, Igartzako jauregian, manifestuaren aurkezpena, 35 pertsona esanguratsuren sinadurak bildu eta argazkia atera.
 - ✓ Manifestuaren aldeko sinadura-biltzeak Goierriko herrietan zehar: atxikimendua adierazi eta udalei onarpen-eskaera egin.
 - ✓ Larraizko lehen ekitaldia, *Pasalanga*, sei-hun lagun bildu zituena. Sinadurak, logo berria, kantua, manifestua, bertso-lariak, zelaian Nazioen mundua letrak, etab.
- Udalei irailaren amaieran hasita aurkeztu zitzaizkien atxikimendu-eskaerak. Beasaingo Udalak tratatu zuen gaia lehenik urriaren 1ean Osoko Bilkuran eta onartu zuen proposamena. Ondoren, 2011ko apirila bitartean, Goierriko udal guztiek onartu zuten Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldeko mozioa. Tartean egin ziren:
- ✓ Miramar jauregian manifestuaren aurkezpene eta eskoziarrek egiteko ekitaldiaren iragarpena urriaren 9an, ideien zabalkuntza Goierritik Euskal Herrira. Euskal Herriko pertsona esanguratsuak izan ziren bertan.
 - ✓ Eskoziarrek eta euskaldunek Ordiziako errugbi-zelai zaharretan burutu zuten ekitaldi handia. Urriaren 16an. 2010. urteko ekitaldirik ikusgarriena izan zen. Bost mila lagunetik gora izan ziren bertan egun osoan zehar egindako jardunetan. Europako estaturik gabeko bi naziotako kideek elkarrekin ospatutako aldarrikapen-egun handia izan zen.
 - ✓ Abenduaren 18an, urteko balantzea egiteko batzar irekia Idiazabalen. Urtarrilean Goierriko Nazioen Munduak 2011rako egitaraua egin zuen eta herriz herri eratutako tal-

deek ere herri bakoitzerako berena landu zuten. Helburua: Politiko baina areago gizartearena eta gizataldeena den autodeterminatzeko eskubide demokratikoaren alde lanean jarraitu, euskal gizartea horretaz jabetzeko eta eskubide hori gauzatzeko moduan jarri arte lan egin.

Udaberrirako Goierriko udalek Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubideaz mozioak onartuak izanik, 2011-04-18an, Itsasondan bildu ziren udal gehienetako ordezkariak, 1931ko onartzaileen ondorengoei batera, lehen aitormentzen haren 80. urteurrena gogoratzeko.

Ondoren, beste ekitaldi handi bat burutu zen Larraitzen 2011-07-02an eguraldi ederrarekin. Hango belardi batean, mosaiko handi batzuk egin ziren 1.200 bat pertsonekin. Pertsonaz osatutako **autodeterminazioa** izen finkoa, **Euskal Herriaren mapa** eta ondoren, mapa urna bihurtuta, pertsonen egindako kartazal erraldoi bat mugitu zen urnan sartu arte eta urna barruan **Euskal Herriaren mapa** bilakatu zen; bitartean goiko errotulazioa ingelesezko **self determination** bihurtu zen. Une hunkigarriak eta maisutasun handiz burutuak. Garabi erraldoi batetik grabatu zen guztia eta Larrunarritik parapentean jaistean Marronek eta bere kideak argazki historikoak egin zituzten.

Ekimen horien denen irudiak eta beste hainbat, GNM mugimenduak hala eskatuta, Jon Maiak eta bere lantaldeak dokumental handi bat egiteko jaso dituzte eta Euskal Herriaz eta bere autodeterminaziorako eskubideaz jardungo duen dokumental hori laster izango dugu ikusgai Euskal Herriko bazter guztietan. Dagoeneko trailer bat prestatua dute eta hura ikusitako guztiek etorkizun ona iragartzen diote dokumentalari. Bideo labur ederrak ere ikusgai dira interneten.

Sinadura bilketak eginga du sozializazio-ahalegin bat Goierriin

eta mozioen onarpenak ere txingarra piztua du Goierriko agintarien artean. Udalak aldatu dira baina aldeko irizpideen kopuruak ez du behera egin. Baina herritar soilen artean ideia gehiago landu eta zabaldu beharra dago. Herritar xumeek eskubide honen garrantziaz jabetu behar dute. Une honetako giro politikoak ere lagun lezake horretan. Dokumentu eta ekintzen ildoan gauza asko bildu eta lortu dira. Ezagutza zabaltzen ari da. 2012an, Euskal Herriko estatu izan zen Nafarroako estatuaren azken lurralde-zatiaren konkista eta galeraren 500. urteurrena betetzen da eta urte ona izan daiteke ditugun baliabideen bidez jendea geure izanaren egia agertzeko eta herri bezala dagokigun eskubide ukalezina behin eta berriz alde guztietan aldarrikatu eta eskatzeko.

Bestalde, hori dena Goierritik Euskal Herri osora zabaldu behar da. Euskal Herriko beste eskualdeetan ere bada noski Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldeko jenderik, beharrik!, baina ideia horren, eskubide horren, hedadura leku guztietara iritsi behar da, toki guztietan eskubide horren iritzikorrante sendoa sortzeko. Euskal Herrian pertsona orok egin behar du gogoeta eskubide honetaz eta guk hori denei helarazten ahalegintzeko zeregina dugu. Euskararen berreskurapenarekin eta garapenarekin batera, une honetan Euskal Herrian dugun eginkizun politiko nagusia da eta orain arte aipatu ere egin ez ditudan alderdi politikoek ere, beren zeregin nagusiene-takoa denez, eskubide honetaz eta bera gauzatzeari jarrera argi eta garbia hartu behar dute (batzuk jada hartua dute), eta horren ondoren, horretarantz bidea egiteko orain arte baino askoz ere lan gehiago egin behar dute. Hori da herritarrok eta ekimen orok politikariei eskatu behar dieguna, aldi berean geure bultzada eta laguntza osoa eskainiz. Horretarako dira alderdi politikoak, herritarren eskaera politikoak gauzatzeko.



over Urraki
Bidaietan adituak

LAISTER WEB ORRI BERRIA:
www.urrakibidaia.com

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 **BEASAIN**
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak,
Erreformat... www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia	Artikulazio eta ahoko minak
Inplantologia	Radiologia digital zerbitzua
Periodontzia	Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Herrian beti gogoratuko dugu, bati eta besteari
kontu galdezka eta zehatz mehatz apuntatzen;
ikusten zuenaz egiten zuen etnografia.



*Jexux Aizpurua
Barandiaran*

Behaketa

Joxemartin Apalategi Begiristain, antropologoaren errainua

Goiz umela Ataunen: erreka-lainoa itxi-itxi eta Agauntza erreken soinua lagun. Zelata aldean zapelaria hegari ehizean. Eguzkiari majo kostatu zaio zulatzea.

Iragarrita bezalaxe, jendea hurbiltzen hasi da antzoki alde-
ra, Joxemartini eskainitako ekitaldira. Eusko Ikaskuntzaren bul-
tzadaz, hain zuzen.

Tranpaleko mahai luzean Inmaculada Sanchez, Joan Antonio Rubio Ardanaz, Igor Aierbe alkatea, Teresa Del Valle eta Iñaki Olaizola. Bakoitzak bere arloan jardun du, omenduari buruzko aipamen bereziak eginez. Tartean bere maisu eta laguntzaile izandakoen aipuak ere egin dira: Joxemiel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Joan Arin Dorronsoro, Joxe Arratibel, Joxe Mari Satrustegi, Fermin Leizaola... Etniker.

Gehienbat eta laburbilduz, duela 4 urte Donostiako ome-
naldian egindako lanez osatutako liburuaren aurkezpena izan da. Hona egileen zerrenda: Joan Antonio Rubio Ardanaz, Jokin Apalategi Begiristain, Jaione Apalategi Begiristain, Denis Laborde, Inmaculada Sanchez Martin, Rosa Garcia-Orellan, Aitzpea Leizaola, Txemi Apaolaza, Jose Ignacio Homobono Martinez, Fermin Leizaola Calvo, Teresa del Valle Murga, Maria Amor Begiristain Gupride, Joan Garmendia Larrañaga, Isusko Vivas Ziarrusta, Miren Egaña-Goya, Andoni Otamendi, Joan Manuel Etxebarria Ayesta eta Anton Erkoreka Barrena.

Joxemartinen ikerlari-zedarrak behin eta berriz aipatu dira, baina oinarritzkoenetakoa, hau da, EUSKARA, ekitaldian oso urri erabili da, herren, ahul eta trakets Ataun sorterrian izanik eta Euskal Herriko Unibertsitatean euskara bultzatzeko berak egin-
dako ahalegin nekagaitza kontuan hartuz; lehendabizikoa izan baitzen Antropologia euskaraz irakasten; bere pentsakerak eta jardunbideak gehixeago merezi zuen, alajainkoa!.

Eskerrak familiartekoei; hauek bai. Aise jakin dute bere senidearen mezuak bere jatorrizko mintzoan zabaltzen eta hala-
xe bideratu dute ekitaldia: Jokin, atzera eta aurrera, antolaketa-
lanetan ibili da, Maite Idirin koinatak Agur Jaunak egokitua kan-
tatu du eta Jaione arrebak, berriz, anaiari buruzkoak aipatu
ondoren, familiak Joxemartinen liburu-ondare osoa Ataungo
herriarentzat ematea erabaki duela jakinarazi du, aurreko uda-
larekin hasitako asmoari segida emanez. Horretarako leku ego-
kia ere aipatu du: Barandiaran museoko Oilategia izeneko
gunea, aurrerantza Joxemartin Apalategi Begiristain ikerlekua
deituko zaiona.

Atsegin handiz jarraitu du jendeak ekitaldia eta ondoren
solaserako hamaiketakoa ere bai. Guztira 50en bat pasatsu;
erdiak baino gehiago kanpokoak eta gazte-jendea?

Joxemartinek eman zuen berea eta bere ikerlana hasi da
estreinako emaitzak ematen. Herrian beti gogoratuko dugu, bati
eta besteari kontu-galdezka eta zehatz-mehatz apuntatzen;
ikusten zuenaz egiten zuen etnografia. Bestetik, Ataun uniber-
tsitatera eraman zuen. Herrian jasotakoak noiznahi aipatzen
baitzuten ikasgelan, oinezko antropologia egin behar zela azpi-
marratuz. Metodologia hori Joxemiel Barandiarangandik ikasita
zuen, Wundt alemanari jarraiki. Guretzat ere irakaspen ederra,
baldin eta ikerketan ekin nahi baldin badugu. "Antropologo-
lana neure kultura aztertzei abiatzen dut" zioen 1997an.

2006ko otsailaren 8an hil zen eta, harrezkero, ikertzaile
berrien bila omen dabil Saratsamendiko lepotik hasi eta
Artzateko mailoen ingurumarrira bitarte, Olata, Sugazulo,
Iruzuloeta eta Leizegiko harrikadietan, goroldikoak edertutakoa
nahiz ardagaia behatutakoa jaso asmoz: "izingo ek launtzaik,
bazetozek berrik eta... ie bitxurre seittuz, gaurko testigantzea or
dijoakik, alkarren berri izingo diau...".

Agur eta ohore Ezkaluneko Joxemartin!

Ataun (2011-12-10)

Gabon zoriontsuak
opa diskituegu guztioi!

Aranburu

OINETAKOAK

☎ 943 880 127 Kale Nagusia,36 BEASAIN

LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua 2/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN



www.mueblesordizia.com



Diseinua
Dekorazioa

Aholkularitzarik onena
eta kalitatezko zerbitzu teknikoa

Mallutz, 2 - ORDIZIA (N-1aren ondoan) T. 943 88 53 50 - 943 88 23 50



SASIETA
MANKOMUNITATEA

Zorionak eta urte berri on!!

2012an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

Batzuk, batzuek...

Maizpide euskaltegia

Gizon batzuk egin dute ala gizon batzuek egin dute?

Biak al dira zuzenak euskara batuan? Bada, duela urte batzuk arte halaxe izan bazen ere, Euskaltzaindiak horren inguruko erabakia hartu zuenetik bigarrena baino ezin da ametitu. Erreparatu ondorengo bi zutabeei:

Oilar batzuek KIKIRIKI kantatzen dute; beste batzuek, KOKORIKO... eta nik: KUKURRUKU!*



Gaintzako oilarrak esana!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Batzutan ahaztu egiten zaigu pazientzia zer den.
2. Politikari batzuegan ez dut konfiantzarik.
3. Gauza batzutarako hobe da bi aldiz ez pentsatzea.
4. Epaile batzuen erabakiak harrigarriak izaten dira oso.
5. Hauteskunde-kanpaina batzutatik ezin da ondoriorik atera.
6. Zerrenda batzuk "kutsatuta" daudela esan du Conde Pumpidok.
7. Lapurreta batzuegatik atxilotu omen dute Ixabel Pantoja.
8. Agintari batzuegandik ezin da gauza handiegirik espero.

OHARRA: Esaldi bakoitiak gaizki daude; bikoitiak, ondo!

Orain arte bi zutabetako formak berdin-berdin erabili badi-tuzu, jakin ezazu aurrerantzean bigarren zutabetakoak bakarrik hartu beharko dituzula aintzat. Horrela:

- ✓ **Gizon batzuk etorri dira** (eta ez gizon batzu etorri dira).
- ✓ **Gizon batzuei gertatu zaie** (eta ez gizon batzuri gertatu zaie).
- ✓ **Gizon batzuentzat ona da** (eta ez gizon batzuentzat ona da).

Batzu	Batzuk
Batzuk	Batzuek
Batzuri	Batzuei
Batzuren	Batzuen
Batzurekin	Batzuekin
Batzurentzat	Batzuentzat
Batzuz	Batzuez
Batzutan	Batzuetan
Batzurengan	Batzuegan
Batzutako	Batzuetako
Batzurenganako	Batzueganako
Batzutara	Batzuetara
Batzurengana	Batzuegana
Batzutaraino	Batzuetaraino
Batzurenganaino	Batzueganaino
Batzutatik	Batzuetatik
Batzuegandik	Batzuegandik
Batzuegatik	Batzuegatik
Batzutarako	Batzuetarako

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko menua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

pttk
ordizia

Pintxo hotz eta beroak
Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA T 943 16 03 04

“Zerbitzuaren kalitatea hobetzearekin dudarik gabe lehiakorragoak garela”

Euskadin 273 establezimenduk, Zeraingo turismo bulegoa tartean dela, jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.



Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?

Eusko Jaurlaritzak, turismo bulegoen sarea osatzen dugun Itourbask-eko turismo bulegoei, kalitatearen Q-a lortzeko ikastaro bat eskaini zigun, 2005 inguruan. Orduan hasi ginen kalitatearen inguruan lanean. Bi urte geroago, 2007an lortu genuen kalitatearen Q-a.

Ze abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?

Abantaila garbiena, uneoroko hobekuntza lantzea da. Eta honi loturik urtero helburu berriak izatea gure zerbitzua hobetu eta eskaintza zabaltzeko.

Ezarpeneren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaitan? Eta azpiegitura kontuetan?

Hobekuntzak nahiko orokorrak direla esango nuke. Ez dut uste lehen egiten ez genuen ezer egiten dugunik, baina orain antolatu egiten garela esan genezake. Orain dena idatzita dugu, bisitarietara nola egin, telefonoa nola hartu, foiletoak non eskatu, etab. Lehen ere hori dena egiten genuen, baina orain langile guztiok dakigu nola egin, eta donok berdin egiten dugu.

Azpiegiturei dagokienez, gure kasuan ez dugu aldaketa gehiegirik egin

behar izan, baina adibidez herrian jarrita dauden panelak egokitu behar izan ditugu ordutegia jarritz.

Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Bisitarietara burutzen dizkiegun inkesten bidez, gure zerbitzuak dituen gabeziak zeintzuk diren aztertzen dugu eta honekin egin beharreko hobekuntzak zehaztu.

Esan daiteke, hobekuntza ia denak edo garrantzitsuenak behintzat bezeroaren asebetetzearekin erlazionaturik daudela.

Zer esango zenieke turismo arloko profesionalei Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako animatu daitezen?

Zalantzarik gabe, animatzeko. Nahiz eta hasera batetan lan pixka bat suposatzen duen, behin martxan jarritakoan, egunero lanean lagungarria dela eta antolakuntzan laguntzen duela.

Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatzeko lehiakorragoa ahalbidetzen du?

Bai, azken urte hauetan, geroz eta enpresa gehiago ari dira kalitatearen inguruan lanean, eta hori zerbaitegatik da. Zerbitzuaren kalitatea hobetzearekin dudarik gabe lehiakorragoak garela esango nuke.

Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?

Agian garrantzitsuenak, eta batez ere antolatzen laguntzen diguna, zuzendaritza atala da. Bertan sartzen baitira langile bakoitzaren prestakuntza, bulegoaren beharrak, helburuak, etab.

Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Zeraingo turismo bulegoa kudeatzen duen Aldabe erakundea, kalitatearen inguruan lanean ari da, eta lan talde osoak parte hartzen du. 2010ean Segurako Turismo bulegoan ere Q-a lortu genuen.

Honez gain, Zeraingo Herri Museoa, Aizpita Adieraztegia, Segurako Erdi-aro interpretazio zentroa eta Harizti erdi aterpetxea ere “Jarduera egokirako” programan parte hartzen ari dira, eta honi lotuta, herriko beste zerbitzuak ere bertan parte hartzera bultzatu ditugu, ahal dugun neurrian gure laguntza eskainiz: Oiharte nekazalturismo eta sagardotegiari, Otatza sagardotegiari, Mandio tabernari, etab.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

- ✓ **Jardunbide egokirako programak:** helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomugakontzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.
- ✓ **Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.
- ✓ **EFQM Bikaintasun eredu:** erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

BASQUETOUR
TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO

Herni-baitzua

EUSKO JAURLARITZA

Sociedad Pública del

GOBIERNO VASCO

EUSKALIT
Bikaintasunerako Euskal Fundazioa
Fundación Vasca para la Excelencia

Jarri Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!

94 607 75 86
94 404 74 70




www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

Astronomiaren zenbait bitxikeria

Antzinetik kultura guztietan izarrak behatu dira. Ikertzaile askok eta askok lan ugari egin dute horiek ikertzen. Zertarako? Zerk motibatzen gaitu hainbeste ordu eta diru horretan inbertitzera? Nire ustez, betiko galderei erantzun zientifiko baten bila gabiltza. Nola sortu zen unibertsoa? Big-Bangen aurretik zer zegoen? Zerez osatuta gaude, hau da, atomo unibertsoaren barruan zer dago? Legeren bat al dago Unibertso handia eta unibertso txikia erlazionatzen dituen?

Dakizuenez gure eguzki sisteman zortzi planeta daude: Merkurio, Artizarra, Lurra, Martitz, Jupiter, Saturno, Urano, eta Neptuno. (Pluton txikia denez asteroideztat hartu izan da). Oraingoan Merkurio Planetaz idatzi behar dugu, oso planeta bitxia baita. Eguzkitik gertuen dagoen planeta da. Erromatar mitologoek Merkurio Jainkoaren omenez jarri zioten bere izena. Pythagoras ohartu zen, bi momentu berezietan ikusi zitekeela planeta misterioitsu hau, goizez, eguzkia atera baino lehen edo arratsaldeko azken orduan, eguzkia sartzen denean, eta ezkutaketan jolasten ari dela dirudi. Garai horretan begiz egiten zituzten ikerketak. Teleskopioa asmatu zenean, Merkurio eta unibertsoa ikertzeko tresna izugarria bihurtu zen. Gaur egun zundak bidaltzen dira planeta bertara joateko eta datu bereziak jasotzeko. Honela, plane-



ten ezaugarriak ezagutu ditzakegu.

Merkurioren kasuan, begiz ikustea zaila da eguzkiaren gertutasunarengatik (eguzkiak bere argiarekin itzal egiten dio). Baina zundak bidaltzea ere ez da batere erraza. Alde batetik, ia atmosfera gabeko planeta denez, oso tenperatura desberdinak ditu. Goizean 450°C hartzen du eta gauez -180°C. Zundaren materialak oso material berezia izan behar du tenperatura hauek jasateko. Bestetik, eguzkiak erakapen indar izugarria egiten du eta zundak indar handia behar du frenatzeko eta Merkurioren orbitan sartzeko. 1974an, Mariner zunda bidali zuten eta datu interesgarriak lortu zituen: Merkurioren orbita heliptikoa dela jakitea lortu zuten, eguzkiarekiko punturik gertuena (perihelioa), 47milioi km-takoa dela eta eguzkiarekiko punturik urru-

tiena (afelioa), 80milioi km-takoa dela. Gainazala, ilargiaren antzekoa da, hau da, krateretz bete dago, asteroide eta kometa askoren talkagatik. Orain dela 4.000 milioi urte sortutako planeta dela uste da. Bere barne egitura ere bitxia da. Ilargiaren dentsitatea baino % 60 handiagoa da. Bere nukleoaren % 42a burdinezkoa du, Lurrarena, berriz, %17koa da. Honek egiten du bere dentsitatea hain handia izatea. Datu hauek eta beste zenbait ikertu dira, baina oraindik ez dakigu beste zenbait bitxikeria. Horregatik, 2004an bidali zuten Messenger zunda, honek zazpi urte behar izan ditu Merkurioren orbitan sartzeko, eta orain itxaroten ari gara ekarriko dizkigun datu berriak eta interesgarriak hausnartzeko.

Bukatzeko, esan beharra dago Eguzki sisteman behintzat, gurea bezalako espeziearentzat oso zaila dela beste planeta batean bizitzea. Horregatik, gure planeta urdina zaindu behar dugu baliabide mugatuak baititugu. Bizitza apalagoa eta lasaiagoa behar dugu. Natura errespetatu behar dugu, Lurra planetaren oreka hautsi ez dadin.

Maribel Zufiaur

JAKIN BEHARREKOAK

Hilean 5.000 erosketa inguru ontzi berrerabilgarriekin, Donostia eta Hernaniko hainbat arraindegitan. Kutxa Ekoguneak arraindegietan sortzen diren bilgarri kopurua murrizteko helburuarekin maiztean Hernani eta Donostiako hainbat arraindegitan erosketak egiteko ontzi berrerabilgarria banatu zuen eta emaitzak oso positiboak izan dira. Orain Ordizia eta Itsasondora zabaldu da ekimena.

Espanian herritar gehiago bizikletaz: Urteroko Bizikleta Barometroaren arabera, 2008an bi milioi lagunek bizikleta erabili bazuten, 2011n hiru milioi erabiltzen dute. Ekonomia krisiak zein bidegorrien ugalketak eragin dute fenomeno osasuntsu hau.

Kiskaltzeko zorian. Munduko Meteorologia Erakundeak (OMM) 2011 Lurrak jasan duen urterik beroena izan dela esan du Durbanen (Hegoafrika), Aldaketa Klimatikoaren Gailurreko konferentzian. Azaroko eta abenduko datuak falta badira ere, argi geratu omen da tenperaturaren gorako joerak La Niña bezalako fenomenoak gainditu dituela. Zehazki, azken hamar urteotan batez bestekoak gradu erdia egin du gora. Baina larriena, epe laburrean gertatzen diren tenperatura aldaketa bortitzak.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo alboter bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Merkurio ia atmosfera gabeko planeta denez,

oso tenperatura desberdinak ditu. Goizean

450°C hartzen du eta gauez 180°C.

Zundaren materialak oso material berezia

izan behar du tenperatura hauek jasateko.



Irizar, mende bat betea eta hazten

www.irizar.com

Etxeko lanetan dabiltzanen gizarte segurantzaren araudi berria

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera etxeko zerbitzuan lan egiten dutenei ezarriko zaien araudi berria indarrean sartuko da. Beraien gizarte segurantzaren baldintzak hobetzea eta beraien ezkutuko ekonomia egoera ekiditea izango du araudi berri honek helburu.

700.000 langile ingururi aplikagarria izango dela aurrirakusten da, bere eraginkortasuna zenbatekoa izango den oraindik neurtzeaz badago ere.

Legedi berri honen puntu aipagarrienak honako hauek dira:

✗ Etxeko lanetan diharduen edonork, **idatzizko lan-kontratu** bat izan beharko du, gutxienezko aipamen batzuekin, gizarte segurantzaren altan eman ahal izateko.

✗ **Ordu bakar bat** lan egitea nahiko izango da **gizarte segurantzaren babespean** geratzeko.

✗ Etxeko nagusiek eman beharko diote derrigorrez altan gizarte segurantzaren langileari.

✗ 2019 urterarte, langileak irabazten duenaren arabera eta ezarri diren atal edo tarte desberdinen arabera gizarte segurantzari ordaindu beharko zaio. Ordainketa hau langilearen eta enpresaren gain izango da. **Ordainketa hilean 19€ eta 164€ ren artean izango litzake**, bakoitzak irabazten duena zein atal edo tarteren barnean dagoen kontutan izanda (15 atal desberdin izango dira).

✗ Lan kontratu partziala dutenek kotizazioa ere partzialtasun horren arabera izango dute.

✗ **Gaixotasun kasuan**, 4. egunetik 8. egunera etxeko nagusiek ordainduko diote langileari eta hortik aurrera gizarte segurantzak (orain ia lehen hila-bete osoan ez zuten ezer kobratzen).

✗ **Familia ugaridun etxeetan** etxeko lanetarako kontratuengatik laguntzak izango dituzte.

✗ Gizarte segurantzaren ordaintzeak, **ez du langabezirako eskubiderik emango** momentuz, honen inguruko azterketa eta elkarriketak legean bertan aurrirakusten badira ere.



Pello Barandiaran
Gertu aholkularitza
Beasain

Azkenik, lege hau indarrean urtarrilaren 1ean sartzen bada ere, 6 hilabeteko 'aldibaterako epea' izango du, etxeko nagusi zein langileak lege honetara egokitzen joan daitezten.

Iñautsi Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

ZEGAMA OKINDEGIA
Inhausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxu:** Dia, Belarzin. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txitxiki, Uriarte-Pinedo.

Zuriñe
Edergintza

MANIKURAK, PEDIKURAK, AURPEGIKO TRATAMENDUAK, GORPUTZEKO TRATAMENDUAK, MAKILAJEAK, DEPILAZIOAK, BRONTZETATZEAK...

Urrian promozioa!

Tel.: 647 314 771
Garmendia Otaola, 5 - beheka 3
BEASAIN

ZAHARRA • BERRI
IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN



suquia



Kale Nagusia, 10
TEL.: 943 882 300 **ORDIZIA**
suquia@suquiahogar.com

Nafarroa Etorbidea, 16
TEL.: 943 884 375 **BEASAIN**
suquiacocinas.e@suquiahogar.com

sukaldeak eta etxetresna elektrikoak



www.suquiahogar.com



Barazki eta otarrainska tempura



Osagaiak

- 16 otarrainska edo langostino
- Kuiatxo edo kalabazin bat
- Azenario bat
- Brokoli bat
- Pipar gorri edo berde bat
- Irin edalontzi bat
- Ur hotz edalontzi bat
- Arrautza gorringo bat
- Izotz puska batzuk

Toki Alai jatetxea
Arama

prestaketa

Lehenik eta behin otarrainskak garbitu behar dira. Luzeeran dituzten hesteak kentzeko, laban bat gainetik pasa eta puntarekin altxatu, gero tira egin. Otarrainskak frijitzerakoan, bildu egin daitezke, hori gerta ez dadin, brotxeta makil batean ziztatu daitezke.

Ondoren, barazkiak uretan garbitu eta moztu. Brokolia lora sorta txikietan moztu eta beste barazkiak makiltxoetan.

Tempura nahaskia prestatzeko ipini ontzi batean arrautza gorringoa eta irabiatu indarrez, ondoren ura nahastu eta bukatzeko irina gehitu sardeska batez poliki nahastuz. Izotz puskak ontzian jarri.

Ipini su bizitan zartagi bete olio. Olioak nahiko beroa behar du, baina kontuz ibili erre ez dadin.

Busti pieza guztiak nahasketan eta bota pixkanaka oliotan. Minutu pare batez eduki oliotan eta atera, xurgatu daitezen. Kontutan eduki pieza gehiegi bota ez gero erantsi egingo direla bata bestearekin.

Bukatzeko saltsa bat prestatu daiteke piezak bertan bustitzeko. Nahastu salda pixka bat, soja saltsa apur batekin eta nahi izanez gero tabasko pixka bat.

toki alai
jatetxea

943 88 89 53
arama



Asteburuko
menua

Babarrunak
asteburuetan



Orburu entsalada epela ganbekin

Osagaiak

4 lagunentzat:

- 16 orburu edo alkatxofa.
- Perrexil sorta bat.
- 24 ganba.
- Piper olio-ozpin saltsa:
 - 4 pikillo piper.
 - 2 piper berde.
 - Oliba olio.
 - Gatza.
 - Jerez ozpina.
 - Piperbeltza.



prestaketa

Piperra olio-ozpin saltsa

Piperrak ondo txikitu, oliba oliotan ondo nahasi, eta gatza eta ozpina bota. Bukatzeko, piperbeltz pixka bat gehitu. Dena nahastu eta gorde.

Prestakuntza

Orburuak garbitu hostoak kenduz. Bihotza bakarrik utzi. Gatz uretan, perrexilarekin egosi. Oxidazioagatik, orburuaren berezko kolorea ez galtzeko erabiliko dugu perrexila.

Pertsonako edo anoako, lau orburu, erditik moztuta, zerbitzatu, ganba frijituekin (6 anoako) lagunduta. Bukatzeko, olio-ozpin saltsa bota gainetik.

Martinez jatetxea
Ordizia



Inguruko baratzetatik ekarritako barazki eta lekariak...

Gure basoetako lehen perretxikuak...

Aukeratutako arrain eta haragiak...

Eta gure barran pintxorik goxoenak...

Hau dena lau belaunaldiek egindako lanaren ondorio.

Euskara lanabes

INGUDEA



**GOIERRIKO LANTEGIEN
EUSKARA BATZORDEA**

Ampo, Caf, Ederfil-Becker, Eredu, Hertell,
Irizar eta Orkli lantegiak euskararen
normalizazio bidean indarrak baturik

**Goierriko lantegiak
euskararen alde
elkarlanean**

Euskararen Nazioarteko egunean aurkeztu zen Ingudea, Goierriko lantegien euskara batzordea. Ampo, Caf, Ederfil-Becker, Eredu, Hertell, Irizar eta Orkli lantegik osatzen dute momentuz Ingudea. Euskara lanabes hartuta, elkarlanean, lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko bidean pausoak ematea dute helburu, lantegietan zein gizartean eraginez



Andoni Zubeldia eta Ainara Arzelus.

Ingudea metal arloan erabiltzen den lanabesa da, burdina landu eta forma emateko erabiltzen dena. Ingudearen metafora erabili dute Goierriko zazpi lantegik, euskararen alde lanean jarraitzeko sortu berria duten taldeari izena jartzeko. Ingudea taldearen izenean aurkezpena egin diguten Ampoko Ainara Arzelusek eta Orkliko Andoni Zubeldiak kontatu digute ize-naren xehetasuna: “euskara lanabes ibili nahi dugu. Euskara ingudean landuz, euskarari forma emateko. Ingudea berez, metala lantzeko da, metalari forma emateko da eta hortik hartu dugu ideia”.

Goierriko zazpi enpresek eta kooperatibek osatzen dute

Ingudea: Ampo, Caf, Ederfil-Becker, Eredu, Hertell, Irizar eta Orkli. Momentuan, zazpi lantegi elkartu dira, 5.000 langile hartzen dituen zazpi gun. Dena den, gehiago izatea ere nahi dute. “Indar metaketa horrek hazten jarraitu nahi du eta horretarako atekak zabal-zabalik dituzte bertaratu nahi duten. Gonbidapena luzatzen diegu Goierriko enpresa guztiei”, diote Zubeldiak eta Arzelusek.

Erritmo eta errealtate ezberdinak, helburu bera


Bakoitzak bere erritmoan, euskararen erabilera areagotu eta euskararen normalizazioan lanean urte asko daramatzaten lantegiak dira denak

ere. “Errealitate ezberdineko enpresak izaki, bakoitza bere neurrian eta abiaduran ari da aurrerapausoak ematen, baina guztiek jarri nahi dute beren hondar aletxoak. Guztiak batzen dituen helburua, berriz, bakarra da: euskara lanabes hartuta, lan munduan euskararen erabilera

normalizatzeko bidean pausoak ematea”.

Indarrak batu eta elkarlanean lan egiteko lehen pauso eman dute Ingudea euskara batzordea sortuta. “Helburua, elkarlanean jardutea da, horrela indar metaketa aprobetxatu, lan ildoak definitu eta elkarrekin ekintza

“Helburua, elkarlanean jardutea da, horrela indar metaketa aprobetxatu, lan ildoak definitu eta elkarrekin ekintza bateratuak egiteko”.



Lanber
LAN BERTIKALAK S.L.
San Bartolomé, 12 ORDIZIA
Tel.: 605 712 018
Tel.: 943 162 427
Web: www.lanbertikalak.es
Mail: info@lanbertikalak.es
fatxadak, teilatuak,
terrazak, kanaloaiak,
bajanteak...



MUJICA 19
MUJICA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Ampo



Caf



Ederfil

bateratuak egiteko. Elkarlan horren adibidea Euskararen Nazioarteko Egunerako ekimen bateratua izan da. Ekimen horren helburua enpresetako langileek euskarari babesa ematea eta inguruan ere helburu bera duten enpresak lanean ari direla ikusaraztea izango da”, diote Ingudeakoek. Zazpi lantegi horietako langileen artean, Ingudearen logotipoa duen biserak banatu zituzten, argazkietan ikus daitekeen bezala.

Elkarlana

Elkarlanak frutuak emango dituelakoan daude. “Momentu batean esan genuen, interesgarria izango zela elkar ezagutzea eta elkarlan bat egitea. Ideiak partekatzea. Ez dugu ezagutzen bakoitzaren barne egoera zein den. Asko daukagu partekatzeko, eta elkarrengandik jaso eta emateko. Azkenean ikusten da oso errealitate ezberdinak dauzkagula eta bata besteari lagundu diezaikegula. Elkartrukatzeko foro egokia izan daiteke. Garbi dago, aurretik dagoena borobiltzeko taldea izango dela. Ez du esan nahi, eskualde mailan talde bat sortu izanagatik, aurretik bakoitzak bere etxean genituen ohiturak kenduko dizkigunik. Osagarriak izango dira.”, azpimarratu dute.

Lan ildoak

Lantokietatik kanpora ere eragina izan dezaketelakoan eta aberatsa izango delakoan daude. “Zer partekatua bada-go eta zertan eragina ere bai. Goierriko hornitzaileengan eragin dezakegu adibidez. Enpresa bakarra eskari batekin joan edo zazpiok elkarrekin joan, eragin ezberdina izango du. 5.000 langileko esparrua hartzen du Ingudeak. Nik uste dut horretarako indar bat badagoela. Dena den, ez da helburua kanpoan bakarrik eragitea, etxean bertan lan asko daukagu egiteko”.

Behin Euskararen Eguna pasata, lan ildoak zehazteko

Euskararen Nazioarteko egun berezia

Azken urteetan Euskara Planetan murgilduta dauden enpresek, bakoitzak bere erara ospatu izan dute Euskararen Nazioarteko eguna. Aurtengoa izan da, Ingudea taldea aurkezteko erabili baitute. Langile guztiei, Ingudearen logotipodun bisera oparitu diete, euskarari atxikimendua adierazi nahi zionak, jantzi zezan. Argazkietan duzue Ingudea taldea osatzen duten enpresetako argazki sorta.

elkartuko dira zazpi lantegietako ordezkariak. Zeregina ba omen dute, euskararen alde kolon garrantzitsua gainera. Andoni Egaña bertsolariak hitzaldi batean esandakoarekin bukatuko erreportajea. "Egunak 24 ordu baldin badauzka, 8 lotan pasatzen ditugu, 8 ordu lanean eta beste 8 ordu banatuta. Lanean zati handi bat horretan gaude, egunaren heren bat eta hor euskaraz hitz egitea oso garrantzitsua da".



Eredu



Irizar.



Hertell



Orkli

Buber Saria jaso berria du Euskal Herriko herri lasterketen albisteak biltzen dituen Alberto Mellaren webguneak

lasterketak.com korrikalarien zerbitzura



Lanbidez informatikaria da Alberto Mella eta zaletasunez, korrikalaria. Herri lasterketetan parte hartzen du Beasainen bizi den otxandioarrak eta korrikalari bezala nabari zuen hutsunea betetzera etorri da Mella: Euskal Herriko herri lasterketak bilduko dituen egutegi bat ematera. Lasterketak.com sortu zuen duela 3 urte eta urtetik urtera webgunea osatzen joan da. Egunero mila lagunek baino gehiagok bisitatzen dute lasterketak.com; astelehenetan bikoiztu egiten da bisitari kopurua, lasterketako sailkapenengatik. Abenduaren 1ean berri pozgarria jaso zuen Mellak: interneteko Buber sarietan, sari-tua izan baita bere webgunea.

Afizioa eta ofizioa uztartu ditu Alberto Mellak lasterketak.com webgunean. “Beti ibili naiz korrika. Karrerak non zeuden ikusteko, interneten ibiltzen nintzen. Baina falta zen, toki bat, egutegi bat, denak bateratzen zituena. Karrera batzuk webgunerik ere ez zuten. Askotan ahoz aho jakiten nuen karre-
ren berri. Webgune bateratu baten beharra ikusten nuen. Ideiari bueltak ematen hasi eta informatikaria naizenez, plataforma bat prestatu eta pixkanaka eboluzionatzen joan naiz”.

2008ko abenduaren 8an jarri zuen sarean lasterketak.com. “Egutegia eta albisteak jarri nituen hasieran”, dio Mellak. Pixkanaka atalak gehitzen joan da. Saillapenak eta argazki eta bideoak ere sartzen ditu. Mapa bat ere badu. “Geoposizionatuta jarrita dauzkate karrera guztiak. Mugikorretarako ere badaukate prestatuta”.

Berrikuntzak sartzen joaten da poliki-poliki baina webgunea egunero elikatzen nahikoa lan duela azpimarratu du Mellak. “Gauean edo, lanerako joan-etorrian, trenetan aritzen naiz. Hala ere, justu-justu ibiltzen naiz, karre-
ra pilo bat dago eta. Gero eta lasterketa gehiago daude”. Igande gauetan izaten du lanik handiena normalean, eguneko lasterketetako saillapenak sartzen. “Igande batzutan zortzi karrera ere izaten dira. 14 izan direnak ere badaude. Eta jendeak

“Beti ibili naiz korrika.

Karrerak non zeuden ikusteko,
interneten ibiltzen nintzen.

Baina falta zen, toki bat, egutegi
bat, denak bateratzen zituena”.

lehenbailehen ikusi nahi izaten ditu saillapenak. Sare sozialen bitartez, jendeak oso azkar galdetzen dizu. Jendeak korrika egin, etxera iritsi eta saillapena jakin nahi izaten du. Azkartasuna gustatzen zait”. Informazio asko iritsi egiten zaio Alberto Mellari, baina gehienez, bila aritu behar izaten du oraindik.

Gero eta lasterketa gehiago

Urte hauetan guztietan, ondorio bat ateratu du Alberto Mellak: gero eta lasterketa gehiago dagoela. Egutegia erabilerrazagoa egiteko, lasterketak luzeraren arabera saillatu ditu. 1,609 kilometrokoak, 10 kilometro baino

gutxiagoakoak, 10 kilometrokoak, 11 eta 20 kilometro bitartekoak, 21,097 kilometrokoak, 22-41 kilometro bitartekoak, 42,195 kilometrokoak, 42 kilometrotik gorakoak, igoerak eta mendi lasterketak. “Jendeak luzera ezberdinetako lasterketak prestatzen ditu eta errazago bilatzeko egin dut saillapena. Jendea gustatu zaio”, azpimarratu du.

Euskal Herriko lasterketak

Lasterketak aukeratzekoan Euskal Herriko zazpi herrialdeetan jarri du muga. “Muga bat jarri behar izaten da eta nik Euskal Herria mugatzen dut. Euskal Herrikoak, zazpi probintzietakoak, sartzen

ditut. Salbuespen bat egiten dut. Bizkaiko mugan dagoen Burgosko karrera bat sartzen dut, idatzi egiten didatelako, espreski, egutegian sartzeko. Horrela eskatuta, jarri egiten dut. Muga jarri beharra daukat. Errioxan ere karrera pilo bat dago, Huescan, Cantabrian... muga bat jarri behar da eta nahiz eta gertu egon, ez ditut jartzen”, dio.

Korrikalarien erreferentzia

Alberto Mellaren lana, egunero, jarraitzen duten mila lagun badira gutxienez. Korrikalariet zerbitzua ematen die. “Hasi nintzenean, 100era iristea ikaragarria iruditzen zitzaidan. ‘100 lagun nire webgunean!’ pentsatzen nuen. Orain, egunero, mila sartzen dira gutxienez. Hori jende asko da, eta geroz eta gehiago dira. Orain astelehenetan, normala da 2.000tik gora bisitari izatea Udatik hona igoera nabarmena izan da. Errekorra, iaz, San Silbestre inguruko fetxa horietan izan nuen, 2.000tik gora bisitari izan nituen”, zehaztu du otxandioarrak. “Hasi nintzenean facebook eta twitter ez ziren erabiltzen. Gaur egun, edozein albiste edo lasterketa sarera bidali behar dituzu. Facebooken eta Twitterrean ia bi milana jarraitzaile dituzte webguneak. Albiste bat sartu eta guztietan iristen zaie. Egiten duten lana zabaldu egiten du facebookek”, gaineratu du.

Bisitarien hazkuntza horretan, egunero eduki berriak jartzeak laguntzen

Milaka irudi

Irudiari garrantzia handia ematen dio Alberto Mellak eta inguruko lasterketako milaka argazki sareratu ditu. Adibidez, Zegama-Aizkorri mendi maratoiko 980 argazki; Txindoki igoera bertikaleko 389 argazki; Beasaingo herri lasterketako 400 argazki; Donostiako maratoiko 898 argazki; Beasaingo San Silbestreko 402 argazki; Zarauzko kros mistoko 590 argazki; Ataungo krosetako 199 argazki; Ehunmilakekoak...

Teknologia berriek eskaintzen dituen aukerak ondo aprobetxatzen ditu Mellak. Horren adibidea da, Ehunmilak eta Goierriko Bi Handiak lasterketetako irudiak zuzen-zuzenean eskaini zituela.



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Proiektuak, dekorazioa,
etxebizitzaren berrikuntzak

Kale Nagusia, 21

BEASAIN

Tel.: 943 29 17 48



**ZURE BAINERA KENDU ETA
DUTXA IRRISTAGAITZA JARTZEN
DUGU ORDU GUTXITAN**

Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe
696 39 51 52 - 639 14 23 99

duela uste du. Dena den, korrikalarien artean erreferentzia gune bilakatzen ari da lasterketak.com. Korrikalarien aldetik erreferentzia bada ere, lasterketen antolatzaileei kostatzen omen zaie informazioa bideratzea. “Gehienetan, nik bilatu behar izaten ditut baina asko iristen zaizkit, batez ere berriak. Pixkanaka erreferentzia bihurtzen ari da. Hori ona da, baina ardura handia da. Behin, lasterketa bateko ordua aldatu zuten, nik ez nuen albiste eguneratu eta jendea berandu iritsi zen lasterketara. Lana ondo egitea eskatzen du”.

Babesleak

Borondatez, zaletasunez hartu du Alberto Mellak beregain zerbitzu hau. “Partikularrentzako ez da dirulaguntzarik egoten, nahiz eta zerbitzu handia eman”, azpimarratu du

“2009an 63.586

bisita izan
zituen

webguneak;

2010ean

173.850 eta

2011n, azarora

arte, 290.106.”

Mellak. Ampo kooperatibaren dirulaguntza du bakarrik, momentuz. Laguntza horri esker, usb-a, interneteko konexio mugikorra erosten du “eta horrela trenean lan egin dezaket”.

Gehiegi ez da saiatu babesleak aurkitzen baina beste babesleren bat lortuko balu, argazki makina profesionalago bat erosiko luke, argazkien kalitatea hobetzeko. Jakin baitaki, egutegiarekin eta sailkapenekin batera, argazkiek arrakasta handia izaten dutela. “Denbora asko egon naiz lesionatuta eta

karrera pilo bat ikustea tokatu zait. Argazkiak ateratzeko aprobeztatu dut. Dezente atera ditut. Jendeak asko eskertzen du”. gaineratu du.

Baina orainoz ez du denborarik hartu babesleak bilatzeko, nahiz eta jakin badakien publizitaterako ere egokia dela bere webgunea. “Kirol dendentzat adibidez, publizitatea egiteko oso leku ona da. Egutegiko mila bisita izaten ditut, eta oso jende espezifiko da, kirolariak, atletak. Hortik joan beharko nintzateke, baina poliki-poliki joango naiz”. Webgunetik bizi

ote daitekeen galdetu diogu. “Ez, ezinezkoa da. Mila bisita edukita ez. Milioi bat bisita izanda, potoleren bat etorriko zen bila”.

Erabiltzaileen esker ona

Hala ere, erabiltzaileen esker ona jasotzen du egutegiko eta horrek aurrera egiteko indarra ematen dio. “Ni hasi eta berehala beste bi webgune atera ziren: atletismotop.com eta vamosacorrer.com, bat Diario Vascokoa eta bestea, El Correo taldekkoa. Webgune handiak dira, babes handia daukate atzetik. Atera zirene-

an kezkatu nintzen pixka bat, baina ni goraka eta goraka noa eta gustura nago, ezin naiz kexatu”.

Berrikuntzak ere pentsatzen ari da. “Pentsatzen ari naiz, paralelo bezala edo integratuta, ez dakit oso ondo, munduko maratoin inguruko webgune bat egitea. Lana ematen du, baina ez hainbeste, maratoniak hilabete konkretu batzuetan egiten baitira eta ez dauka presarik sartzeko. Ez dakit zenbat mila maratoni dauden munduan. Zerrenda luzea daukat, baina oraindik pilo falta zaizkit”.



Buber saria irabazi du lasterketak.com webguneak

Erabiltzaileen esker ona jasotzeaz gain, adituen saria ere jaso du lasterketak.com webguneak. Abenduaren 1ean, Buber Sariak banatu zituen Internet&Euskadi Elkarteak Bilbon, Eitbko Multibox aretoan. Blog edo web korporatibo onenaren atalean www.lasterketak.com izan da saritua.

Zer esanahi dauka sariak zuretzat?

Egutegiko egiten dugun lanari beste errekonozimendu bat da. Honekin piska bat ezagunagoak egitea espero dugu eta horrela bisitak areagotzea.

Zein izan da saria?

Izugarri pisatzen duen brontzezko irudi bat da. Ez dago sari ekonomikorik.

Herritarren saria bazeneukan. Orain beste errekonozimendu bat etorri zaizu. Lanean jarraitzeko indarra emango du, ezta?

Horrelakoak aurrera jarraitzeko indarra eta motibazioa ematen dute. Baina sariak baino gehiago, jasotako zorion mezu guztiek ematen dute indarra.

Toyota ia-berriak Kalitatezko aukera

Toyota ia-berriak programak, bigarren eskuko auto aukera zabala zure eskura jartzen du. Denak Toyota Zentru Ofizialak aztertuta eta bermatuta.

- ✓ 48 hilabeterainoko bermea.
- ✓ Eguneko 24 ordutan errepideko laguntza.
- ✓ Toyota ziurtapenak:
 - Gutxienez autoaren 100 punturen azterketa.
 - Autoaren kilometro kopurua Toyota Zentru Ofizial batek zigilatuta.
 - Autoaren historiala.
- ✓ Erosi eta 30 egunera doako azterketa.
- ✓ Autoaren aldaketa bermea: 30 egunera edo 1.500Km-ra.
- ✓ Ordezko autoa, bermea indarrean dagoen bitartean.



Toyota IQ 1.0VVTI 9.950€
14.000km, 2009 urtea



Toyota YARIS 5 ate 10.950€
Gasolina, 8.000km, 2010 urtea



Toyota AURIS 5 ate 14.500€
Diesela, 25.000km, 2010 urtea



Toyota AVENSIS 13.000€
Diesela, 79.000km, 2008 urtea



Toyota AVENSIS 21.950€
Diesela, 14.000km, 2010 urtea



Toyota VERSO 19.950€
Diesela, 17.000km, 2010 urtea



Toyota PRIUS 20.500€
Hibridoa, 11.000km, 2011 urtea



Toyota LAND CRUISER 26.000€
3 ate VX, 50.000km, 2008 urtea



Toyota LAND CRUISER 25.000€
5 ate VX, 81.000km, 2007 urtea

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926
BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA
www.euskoauto.toyota.es

Sentimenduz margotutako artelanak

Pilar Mujikak XX. mende
hasierako Zuri-beltzeko
argazkiak kolorez
jantzi ditu



Arriarango Intxaurpe elkartean XX. mende hasierako Euskal Herriaren istorio ezberdinak ikus daitezke Pilar Mujikak margotutako koadroei esker. Beasainen bizi den Pilar Mujika olaberritarrek XX. mende hasierako zuri-beltzeko argazkiak aukeratu, bizimodu, bizipen eta istorio bakoitzean barneratu, eta koloretako koadroak margotu ditu. Kostaldeko zein baserri giroko irudiak, bizimodua eta istorioak dira. Sentimendu handiz betetako artelanak. Bost urtean egindako lanen bilduma da.

Olaberriarra da jaiotzez Pilar Mujika. "Gazte denbora guztian, Frantzia aldean egon nintzen. Euskaraz hitz egiten ere ahaztu zitzaidan. 20 urte-ekin etorri nintzen". Dena den, beti eraman izan du barru-barruan Euskal Herria eta berekiko sentimentua. Pintura aukeratu du Euskal Herriaren aldeko aletxoak jaritzeko.

Duela bost urte, bere lanetik erretiratu zenean, beti gustatu izan zaion pintura hartu zuen "lantzat". Era horretan, haurtzaroan eta gaztaroan Euskal Herriatik kanpora bizi behar zuen garai haren gosea asetzera dator. "Bakoitzak bere sentimentuak ditu Euskal Herriarekiko, gure historiarekin. Nire garai bateko historian, kanpoan bizi izan nintzelako, hor daukat, gose hori ase gabe. Horrelako argazkian sartzen naizenean, gose hori ahal dudan ondoen osatzen saiatzen naiz. Pertsonajeetan zabaltzen dut. Horregatik egoten naiz aurpegi begira".

Zuri-beltzeko argazkiari kolorea emanez

Jokin Telleria du irakaslea. Pinturan bere bidea egina du eta aurkitu du benetan betetzen duen estiloa: XX. mendearen hasierako zuri-beltzeko argazkiak hartu, eta kolorea eman die. Garai bateko Euskal Herriko historiaren zati bat gorde nahi izan du.

Gai ezberdinak aukeratu ditu: garai bateko Arriaran;

Arriarandik Zeraina

Beasaingo Arriaran auzoko Intxaurpe elkartean egin du lehenengo erakusketa Pilar Mujikak. "Ez naiz zalea. Baina bai naiz zalea, horrelako leku batzuetan agertzea. Gure mundua da. Suhiak bultzatuta jarri dut erakusketa". Harrera ona izan dute bere koadroek eta bi koadro saldu zituen berehala, nahiz eta erakusketaren helburua ez izan koadroak saltzea. Arriarandik, Zeraingo Oiharte landaetxe-sagardotegira eramango du erakusketa. Hori bai, koadro gehiago egiten ditue-nean, "ondo banaiz" bilduma berriarekin berriz ere Arriarana itzuliko omen da, .

Arriarango koadroa eginga dauka eta elkartean bertan utzuko du. "Garai batekoa politagoa zen gaur egungoa baino. Kezka-kezka eginda egon nintzen Intxaurrondoarekin".


Arriarango argazki zaharrak

Mikel Mendizabal da Pilar Mujikaren suhia. Arriarandarra bera, Intxaurpe elkarteko bazkidea. Elkartearen helburuekin bat datorren koadro bilduma dela dio. "Elkartean erakusketarako leku egokia edukitzeaz gain, auzoa biziberritzea da elkartearen helburua. Sinbolikoki asko dauka erakusketa honek: zaharretik, tradizioetik, berrira, kolorea ematea, biziberritzea bezala da. Bizia ematea. Hortik helduta, guretzat ere esanahi handia dauka erakusketak", dio Mikel Mendizabalek. Ildo horretatik, "bertako jendeari esanda dago, argazki zaharrak atera ditzala eta Pilarrek margotuko dituela. Adibidez, Salbatoreko argazki zaharrena, 1961 ingurukoa daukagu. Baina ehun urtekoa beharko dugu. Hemen dauden argazkiak ehun urtekoak dira", gaineratu du.

"Garai hori niretzako, goxoa da, gure sustraiak direlako. Niri gogoratzea asko gustatzen zait. Garai hartan, nahiz eta argazkietan ez ikusi, kolorea bazegoen".

mugarri batean, azokatik bueltan elkartu diren lau emakume; haurrak txalupan Hondarribiatik Hendaia ikusten dela; Iparraldeko erro-mantze bat; gizon-emakumeak laian eta haurrak zaku gainean; Murumenditik leran belarra dakarren baserriarra; Donostian, Urumean, emakumeak arropak garbitzen; Donostiako portua; mutila neska kortejatzen; idi edo behi pare lanean; Baionako argazki bat; Elgetan idi proba jaialdia...

Estilo bat, sentimentu bat duten argazkiak bilatzen ditu. Beste koadro batekin ari da dagoeneko lanean. "Hasita nago, gero gehiegi biziatzen naiz: garai batean, feriarra joan aurretik, nola prestatzen zuten berdura, saskiak, zintzeko ontziak garbitu, orain bezalako aukerarik ez zegoen eta, barreño zaharrak, saskietan nola jartzen zituzten berdurak eta lorak... Montaje hori dena aurkitu dut argazki zahar batean, Bizkaia aldekoa da. Horrekin hasita nago. Beti honetan jarraituko dut. Estiloz aldatzea egin dut baina honek imanak bezala tira egiten dit. Aurreko batean esaten nion Jokini, ez nekiela, pintura lasaitzeko edo oraindik okerrago jartzeko ez ote dudan hartu. 'Hau horrela da, sentitzen duena horrelaxe egoten da' erantzun zidan. Arreglatuta nago orduan!", azaldu du Pilar Mujikak. "Ia bizio bat bezala bihurtu da niretzat pintura", gaineratu du.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridikoa
 - Aseguruak
 - Inmueble
- ajentzia

EGUERDIZ IREKITA
9:30etik 19:00etara
ostiralean:
9:30etik 15:00etara



Hesia

Erakusketako koadro guztien historia eta esanahia azaldu dizkigu Pilar Mujikak, banan-banan. Denak agertzea ezinezkoa zaigunez, Pilarrentzat, berezienak diren hiru aukeratu ditugu.

Azkena egin duen koadroa honokoa. Gazte jendeari hesia zer den eta nola egiten zen erakusteko helburuz egin du koadro hau. “Langak, hesiekin egiten ziren. Baserrietan ere pareta asko hesiarekin egiten zen. Orduan ez zegoen porlanik eta hesi horren kontra, harearekin masa egin eta horrekin egiten zuten pareta. Gaurko egunean gazte askok ez daki hesia zer den, argazki horri horregatik heldu nion, hesia agertzeko”.

Neskaren eta mutilaren aurpegiak ere nabarmendu nahi izan ditu Pilarrek. “Elkar kortejatzen ari dira. Hemen ere, neska, buruz behera begira. Horrek esanahia badauka: garai batean emakumeak nola zeuden edo nola agertzen ziren, lotsatiak edo zerbait entzun nahi ezta”. Pertsonajeen egoeran sartzen saiatzen da Pilar. “Ez baduzu sentitzen, ez daukazu zer eginik. Zuk sartu behar duzu pertsonajeen barruan, aurpegiari espresioa emateko. Batez ere, erromantzeetan. Fijatu zaitetz, nola begiratzen dion mutilak neskari. Neska buru makur egoteko, nola ematen diozu espresioa begietan? Zein pentsamendu edukiko du! Mutila pentsatzen ari da neska nola kortejatu”.

Txakurrak ere nahikoa lan eman omen dio. “Ez nekien zer arraza edo zein kasta izango zen, sekula txakurrei begira egon gabe nengoen. Ehiz txakurra egin nuela esan didate”.



Donostiako portua

“Lanik handiena eman didan kodroa da baina azkenean, gehiena gozatu dudana ere bada. Honen historia da: 1890eko argazkia da. Garai hartan bakailaotara joaten ziren barku zaharrekin. Bakailaotara joaten ziren pertsona horiek hilabeteak pasatzen zituzten itsasoan. Bueltan etortzen zirenean, nagusiak, portuan, zain egoten ziren. Askok gustatzen zait. Portuko horrek sentimendu handia dauka niretzako. Ez nekiena zen, kofradia bakoitzak sarea ere bere kolorekoa zuela”.



Arropa garbitzaileak

“Donostiako argazkia da. Beraneatzera madrileñoak etortzen omen ziren Donostiara. Aberatsak. Haiek etortzen zirenean, Donostian, emakume batzuk zain egoten omen ziren, haiek noiz agertuko, arropak errekan garbituta, diru bat irabazteko. Historia hori jakinda, besteak baino gutxiago ez direla pentsatzen nuen. Jantziei kolore hauek eman dizkiet. Gazte hori oso airosa jarri nuen, gona gorria erakutsiz. Askok gustatu da koadro hori”.

Prozesua

Ahalik eta argazkirik zaharrena aurkitzen saiatzen da Pilar. XX. mende hasierako Euskal Herriko bizimodua ondo agertzen da berak aukeratutako argazkietan. “Garai hori bizi dut eta garai hori niretzako, goxoa da, gure su-traiak direlako. Niri gogoratzea asko gustatzen zait. Garai hartan, nahiz eta argazkietan ez ikusi, kolorea bazegoen”. Lan handia da ordea, eta askotan, ikerketa lana ere egin behar izaten du. Berak azaldu digu zein prozesu jarraitzen duen: “argazki bat hartzen dudanean, nire pelikula egiten dut. Koadroen barruan sartzen naiz, bestela ez dago egiterik. Lan handia dute, zuri-beltzean daude argazki guztiak eta”. Euskal Herriko historiak asko ikasi du, asko arakatu du. Emaitzak bere koadroetan nabari dira.

Pertsonen aurpegiko espresioari garrantzia handia

ematen dio Pilarrek. Lortu nahi zuena lortzeko, kasu batzuetan, behin baino gehiagotan, egin behar izan du. “Zenbat eta gehiago pintatu, zenbat eta pintura gehiago erabili, koadroa orduan eta politagoa gelditzen da. Itzai dihoan emakume horri zenbat aldiz kendu diodan aurpegia! Harik eta atera arte. Zuk sentitzen duzuna agertu nahi duzu baina beti ezin izaten da”.

Gonen kolorea

Emakumeari garrantzia handia eman dio bere lanetan. Buru makur azaltzen da zenbaitetan; airoso bestetan. Zuri-beltzeko argazkietan ez da arropen kolorerik azaltzen. Pilarrek gonen koloreei buruz asko ikertu du. Baina batez ere, emakume batek sortzen dion sentimentuaren arabera margotzen ditu goonak. “Bere estiloari begiratzen diot. Ikusten al duzu ze airoso

atera zaidan bere moñoarekin? Horren gona ezin dut beste edadeko hori bezala, urdin ilunarekin margotu”.

Gona gorriak ere badu historia eta koadroetako batean sartu du gona gorria. Euskal abesti batean azaltzen den gona gorriaren esanahia azaldu digu Pilarrek: “Arabara joaten omen ziren hemengo baserrietako gizonak, garia ebakitzen. Dirurik ez zegoen eta opari bezala, gona gorri bat ematen omen zien emazteentzat. Hori gogoratuz, gorrixka sartu nion arropa garbitzaileari”.

Bizkaitarren eta gipuzkoarren artean, gonen kolorean bada alderik Pilar Mujikak ikertu duenez: “Larramendik badauka liburu batean, mantalaren historia. Bizkaitarrek mantal urdin argia erabiltzen zuten eta gipuzkoarrek beltza. Mugarriko emakumeen gona koloren horretan oinarritu naiz”.

**“Argazki bat hartzen dudanean,
nire pelikula egiten dut.
Koadroen barruan sartzen naiz,
bestela ez dago egiterik.
Lan handia dute, zuri beltzean
daude argazki guztiak eta”**



BEDIA

Altzariak - Dekorazioa

Senpere 7-25. lokala - BEASAIN
Tel./Faxa: 943 16 19 68
info@mueblesbedia.es



**ERA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ORAIN BEASAINEN!**

Ordizia

Liburu azoka

Abenduaren 16tik 18ra, Liburu azoka izango da Barrena Kultur Etxean, Hitzaro Euskara Elkarteak antolatuta. Ostiralean, 17:00etatik 20:00etara. Larunbatean eta igandean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Abenduak 16, ostirala:

17:00etan: Barrena Kultur Etxean Liburu Azokaren irekiera.

18:00etan: Jakintza eta Urdaneta dantza taldeak, kartel lehiaketako sari banaketak, eta txoripistolak.

19:00etan: Barrena Kultur Etxean, Musika Eskolako talde ezberdinen emanaldia.

Abenduak 17, larunbata:

17:00etan: Ipuin kontaketa Mertxe Aizpuruarekin.

19:30ean: Goierriko Kastaren literatura emanaldia.

Abenduak 18, igandea:

10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara: Liburu Azoka.

Añau

V. Euskal liburu eta disko azoka

Irakurle taldeak antolatuta, VI. Liburu eta disko azoka izango da abenduaren 16tik 18ra, San Martin auzoan, Graziñaberri aretoan. Azokako produktu guztiek %15eko beherapena izango dute, Ataungo Udalari esker.

Abenduak 16, ostirala:

18:00etan: Azokaren irekiera.

19:00etan: 'Las actas de Txiberta-Xibertako aktak 1977' liburuaz arituko dira. Bilera horietako partaide izan zen Jexux Arin ataundarrak hitz egingo du.

20:00etan: Azokaren itxiera.

Abenduak 17, larunbata: herritarren txokoa:

10:00etan: Azokaren irekiera.

12:00etan: Eneko Aizpuruak 'Errauts' lana aurkeztuko du.

14:00etan: Azokaren itxiera.

16:00etan: Azokaren irekiera.

17:30ean: Eneko eta Aiorak Euskal Herriko Trikitialri Elkartearen diskoan 'Armuño'-ren omenez eginiko abestiak aurkeztuko dituzte.

18:00etan: Herri Antzokian, Esne Beltza taldeak grabaturiko DVDaren aurkezpena DZ eta Xabi Solanoren eskutik.

20:00etan: Azokaren itxiera.

Abenduak 18, igandea: haurren txokoa:

10:00etan: Azokaren irekiera.

11:00etan: Mertxe Aizpuruak ipuin kontalaria.

12:00etan: Udaletxeko Batzar aretoan, 'Moroak gara behe-laino artean', Joseba Sarrionaindiaren liburuaz solasaldia, Jose Angel Irigarai eta Pello Elzabururen eskutik.

14:00etan: Azokaren itxiera.

Segura

V. Euskal liburu, disko eta jostailuen azoka

Abenduaren 16tik 18ra, Botika Xahar kulturgunean, V. Euskal liburu, disko eta jostailuen azoka izango da Hitz Eta Irri Euskara Elkarteak, Gazte Asanbladak, Elorri Elkarteak eta Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta. Azokaren ordutegia honakoa da: ostiralean, 18:00etatik 20:30era; larunbatean 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era; eta igandean, 11:00etatik 14:00etara.

Abenduak 15, osteguna:

19:00etan: Botika Xaharrean, Literatura tertulia saioa: Goizalde Landabasorekin, bere 'Braskint' liburu gaitzat hartuta.

Abenduak 16, ostirala:

18:00etan: Herrian zehar, kalejira txistulariekin eta dantza saioa azoka aurrean.

18:30ean: Botika Xaharrean, azokaren inaugurazioa, argazki lehiaketako sari banaketa, 'Xabier Lete oroitzu' kantutak herriko abesbatzaren laguntzarekin, gaztainak eta ardoa.

Abenduak 17, larunbata:

13:00etan: Musika Eskolaren emanaldia.

Lazkao

XXXIII. Euskal liburu eta disko azoka

Abenduak 16, ostirala:

16:30etik 20:30era: Azoka, plazako pilotalekuan. %15eko liburu eta diskoetan Udalari esker.

16:30ean: Txokolate beroa bizkotxoekin.

20:00etan: Bide Ertzean taldearekin solasean eta jolasean: beraien bizi musikari errepasoa eman eta dozena erdi bat kantu joko dituzte zuzenean, era akustikoan.

Abenduak 17, larunbata:

10:00etatik 20:30era: Azoka. %15eko deskontua izango da liburu eta diskoetan Udalari esker.

12:00etan: Salda beroa.

18:00etan: Buruhandiak, astoa gurdiaekin, paseorako aukera, gaztaina erreak.

20:00etan: Seiren taldearekin solasean eta jolasean: beraien bizitza musikala biluztuko dute eta dozena erdi bat kantu joko dituzte zuzenean, era akustikoan.

Abenduak 18, igandea:

10:00etatik 14:30era: Azoka. %15eko deskontua izango da liburu eta diskoetan Udalari esker.

12:00etan: Salda beroa eta pintxoak, haurrentzako jolasak, Goierriko Bertso Eskolako Lazkaoko taldeko bertsolarien bertso-saioa.

Denda berria Ordizian!



Tel.: 943 888 232

Zaldibia

Majori plaza, 12
(Zaldibiako errepidean)
Ordizia



Euskal jantziak

Jaietarako,
dantza taldeak,
ezkontzak...



Saskiak, abarkak...



Buruhandiak



Adi konpartsak!
Ihauteriak 2012ko materiala iritsi da!

www.jaiakdenda.com

Lazkao

'Moskorrak' mus lehiaketa

Abenduaren 17an, arratsaldeko 4,30etan, XXXI. 'Moskorrak' mus lehiaketa jokatu da Gerrikon. 15:30ean, irekiko da izena ematea. 30 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak. Bikote irabazlearentzat 1.200 euro eta txapela izango dira saritzat. 2.arentzat 600 euro; 3.arentzat 300. Lehenengo nesken edo bikote mistoentzat bi txuleta izango dira.

Eguberrietako ekintzak

Abenduak 16, ostirala:

18:00etan: Elkartasun jaialdia, San Benito ikastetxeko ikasleekin, Aleria Kultur Gunean.

Abenduak 17, larunbata:

20:00etan: Xanbe eta Kantaka abesbatzen eguberri kontzertua San Migel parrokian.

Abenduak 18, igandea:

11:00etan: Benediktarren konbentuan meza Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin.

Abenduak 22, osteguna:

18:30ean: Lazkao txiki musika eskolako ikasleen kontzertua Aleria Kultur Gunean.

Abenduak 24, larunbata:

Goizez: Ikastolako haurrak kantari herrian zehar eta arratsalde herriko zenbait koru.

17:30ean: San Prudentzio auzotik Olentzero, Mari Domingi, herritarrak, Lazkao Txiki musika eskolako trikitilariak eta helduen korua, Oin Arin dantza taldeko dantzariak eta Antzar Gazteak txistulariak auzoz auzo eskean ibiliko dira, onodren 19:00etanongi etorria Plazan.

Abenduak 25, igandea:

12:00etan: Meza nagusia San Migel parrokian Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin.

13:00etan: Jaiotza biziduna Lazkao Txiki Zelaian.

Abenduak 31, larunbata:

13:00etan: Euskal Preso politikoen eskubideen aldeko elkarlanean.

Urtarrilak 5, osteguna:

11:00etan: Txindoki gerontologikora Errege magoak iritsiko dira opariekin.

18:30ean: Errege kabalgata San Prudentzio auzotik abiatu eta Lazkao Txiki Zelaian amaituko da.

Urtarrilak 7, larunbata:

18:00etan: Xanbe haur abesbatzaren kontzertua Aleria Kultur.

Astotxo Eguna

Urtarrilak 8, igandea:

10:00etan: Asto diana herriann zehar.

11:00etan: Meza Nagusia, Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin Zisterarren konbentuan.

12:00etan: Gipuzkoako XIII. Enkarterri asto lehiaketa, asto erakusketa, haurrentzako gurdi ibiltariak, salda beroa, trikitilariak, txistulariak.

13:00etan: Egiptorako Ihesaren kale antzespina, Infantadoko Dukearen, Monja Zisterarren eta Lazkao Txiki Zelai inguruetan. 1652an sortutako festari emango diote bizia 200 bat lazkaotarrek.

ARANDIA

GARAJEA

MULTIMARKA

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

KIKO ENEA taberna



Ostiralean eta larunbatetan
plater konbinatuak

Bazkari eta afariak enkarguz

Gipuzkoa, 13
T. 943 08 48 11
ORDIZIA


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnada 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O





zuhatzki

S A


Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Etxeko osagaiak
Dekorazioa
Altzari pertsonalizatuak
Opariak

Mendeurren etorbidea, 1 A-B
T. 943 88 13 19 - BEASAIN



Kale Nagusia, 19 BEASAIN T. 943 027 520

Ordizia

Gabonetako ekintzak

Abenduak 18, igandea:

19:00etan: Santa Ana abesbatzak, eskainitako Eguberrietako Kontzertua elizan, 'Barikuan' musika taldearen laguntzarekin.

Abenduak 20, asteartea:

17:30etan: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa Mertxe Aizpuruarekin.

Abenduak 22, osteguna:

19:00etan: Goiztiri-AEKren Gabonetako postal lehiaketako sari banaketa eta lanen erakusketa Barrena Kultur Etxean.

Abenduak 23, ostirala:

18:30ean: Jubilatuen Egoitzan Eguberrietako jaialdia, Umore Ona Abesbatza, poesiak, zozketak...

19:00etan: Musika Eskolako ikasleak aterako dira eta Eguberrietako doinu herrikoia joko dituzte.

20:15ean: Oroith eta Oroith txiki abesbatzek eskainitako Eguberri kontzertua, elizan.

Abenduak 24, larunbata:

18:00etan: Olentzero etorriko da dantzari eta trikitilariak lagun dituela. Plaza Nagusian bukatuko da.

Abenduak 25, igandea:

10:30ean: Diana, 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik.

13:00etan: Eguberrietako kontzertua 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik Plaza Nagusian.

Abenduak 26, astelehena:

11:00etan: D'Elikatuz gunean, 'Azatxoren bila Ordizian zehar' joko 6-9 bitarteko haurrentzat.

11:30ean: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa Maite Frankorekin (4-9 urte bitarteko haurrentzat).

Abenduak 27, asteartea:

11:00etan: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa Pello Añorgarekin.

Abenduak 28, asteazkena:

09:00etan: Eguberrietako feria berezia. Kapoi, Antzar eta indioilarren XXV. Erakusketa Beti Alai Pilotalekuan; errezil sagar, fruitu, fruitu lehorren erakusketak Garagartza Plazan. Orein, pottoka, asto, bigantxa... erakusketa Beti Alai kanpo-pilotalekuan.

11:00etan: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa ingelesez, Maite Frankorekin (4-9 urte bitarteko haurrentzat).

Abenduak 29, osteguna:

10:00etan: Majori kiroldegiko igerileku estalian, 'Eguberrietako Foru Aldundia-Eusko Jaurlaritza Nazioareteko XXIX. Sari Nagusia, Ordizia 2011', Ordizia K.E. Igeriketa sailak antolatuta.

10:30ean: Majori Kiroldegian, Gabonetako VIII. Saskibalo Lehiaketa, haurren teknifikaziorako eskolen artekoa.

11:00etan: Udal Liburutegian txotxongiloak, Toni La Sal taldearen 'Birusak erasoan' lanarekin (4-9 urte bitarteko haurrentzat).

17:00etan: Majori Kiroldegian, Gabonetako VIII. Saskibalo Lehiaketaren finalak.

18:00etan: Jubilatuen Egoitzan, 'Aiton-amona eta bere biloben eguna': 'Monda Lironda pailazoak 'Hau oparia!' lanarekin.

Abenduak 30, ostirala:

11:00etan: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa (4-9 urte bitarteko haurrentzat).

Abenduak 31, larunbata:

17:00etan: Txindoki-Arletismok eta Goiz Aterpe Elkartek antolatutako XXXV. San Silbestre-Jose Manuel Caballero IX. Memoriala. Proba herrikoia, gaztetxoetatik aurrerakoentzat arratsaldeko 6,30etan hasiko da.

19:30etan: Ohikoa den 'Kattalin' doinua joz, Beti Argi Banda eta Laguntasuna errondaila kaleratuko dira.

Urtarrilak 1, igandea:

18:00etan: Beti-Alai pilotalekuan bertso jaialdia Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa jokatu zuten zortzi finalista: Beñat Gaztelumendi, Jose Mari Irazu, Iñaki Apalategi, Aitor Sarriegi, Agin Rezola, Alaia Martin eta Jon Martin. Antolatzailea: Argi Berri Elkartea.

Urtarrilak 2, astelehena:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 18:30era: Haur parkea, Beti Alai pilotalekuan.

Urtarrilak 3, asteartea:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara: Haur parkea, Beti Alai pilotalekuan.


Urtarrilak 4, asteazkena:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara: Haur parkea, Beti Alai pilotalekuan.

Urtarrilak 5, osteguna:

11:00etan: Haurrentzat Winkiren zaldia filma Herri Antzokian.

18:30ean: Bustuntzatik Erregeen kabalgata abiatuko da eta Plaza Nagusian amaituko. Ekintza hau Parrokiko Katekesiak antolatzen du.



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**



biok
zerbitzuak

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7



Ordiziako Tabernarien partetik

Equberri zoriontsuak guztioi!



Beasain

Abenduko ekintzak

Abenduak 15, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Animal kingdom' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian, Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

Abenduak 16tik abenduaren 30era:

19:00etan: X.Goierriko Artisten Topaketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa eta Igartzza Jauregia.

Abenduak 17, larunbata:

20:00etan: Ostadar dantza taldearen Gabonetako dantza jaialdia, Usurbe Antzokian.

Abenduak 18, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Beasain inguratuz.

Abenduak 22, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Una mujer, una pistola y una tienda de flores' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian, Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

Abenduak 23, ostirala:

20:30ean: Loinatz abesbatzaren Eguberrietako kontzertu berezia, Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

Abenduak 24, larunbata:

12:00etan: Olentzero. Ikastetxeen bilkura, Loinazko San Martin plazan.

Abenduak 25, igandea:

12:00etan: Udal Txistulari Bandaren kalejira, Beasaingo kaleetan zehar.

Abenduaren 27tik 29ra:

16:00etatik 19:30era: Haur Parkea, Kiroldegian.

Abenduak 29, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'Gau laburra' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian, Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

Euskal liburu eta disko azoka

Abenduak 16, ostirala:

10:00etatik 13:00etara: Ikastetxeetako bisitak.

17:00etatik 20:00etara: Azoka.

18:30ean: Irekiera ekitaldia. Aurtzaka eta Bertso Eskolako ikasleak.

20:00etan: Igartzako jauregia, 'Eta orain badakit Itsaso kontra bat' hitz, musika eta irudizko poesia irakurketa.

Abenduak 17, larunbata:

11:00etatik 14:00etara: Azoka.

17:00etatik 20:00etara: Azoka.

17:00etan: Mintzodromoa.

19:00etan: Iruñeako erraldoiak eta gaztaina erreak.

Abenduak 18, igandea:

11:00etatik 14:00etara: Azoka.

12:30ean: Migel Angel Mintegiren 'Heriotza zuriz jantzita' liburuaren aurkezpena.

13:00etan: Kantujira.

17:00etatik 20:00etara: Azoka.

Bigarren eskuko merkatu txikia

Beasaingo Andramendi Ikastolak, bigarren eskuko materialaren merkatu txikia antolatu du aurreko Gabon ingururako. Abenduaren 16tik 18ra izango da. 11:00etatik 21:00etara egongo da irekita.



tximiniak / bajanteak / teilatuak / faxadak
/ bizi bideak / segurtasun neurriak

T: 680641401 - 676952968 - www.nanarri.com
aitorg@nanarri.com - aitore@nanarri.com

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa

HIZKUNTZA ESKOLA: INGELERA

UNIBERTSITATE MAILA (MU)

TAILERRAK:
arreta, ulermena, ikasketa teknikak...

MEKANOGRAFIA

Joan Iturralde, 5. eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120 - 685 722 403
ikaskide@ikaskide.net

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Eguberri zoriontsuak guztioi!

**ARRANO
TABERNA**

Pintxo eta ogitartekoak

Jaietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12 BEASAIN



Basakana

Gitoa eta Pintxo Gotoak

943 88 20 23
Iturriotz, 11- Beasain



**KU
LUS
KA**

Arana kalea, 1 - BEASAIN

T. 943 889 388
M. 678 616 498
barkuluska@gmail.com

USURBE

TABERNA

Kale Nagusia 2 - beheko Beasain

1.go urteurrena



TTI



TTA

TABERNA & JATETXEA

T 943 88 00 00
Kale Nagusia, 18 BEASAIN

PUB

ASTI

Zaldizurreta kalea ☎ 943 88 45 06 BEASAIN



Ordizia

Bertso saioa, Gipuzkoako txapelketako finalistekin

Urtarrilaren 1ean, Beti Alai pilotalekuan, 18:00etan, bertso saioa izango da Argi Berri elkarteak antolatuta. Bertan parte hartuko duten bertsolariak Gipuzkoako Bertsolari txapelketan izan diren zortzi finalistak izango dira: Beñat Gaztelumendi, Jose Mari Irazu, Iñaki Apalategi, Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Unai Agirre eta Jon Martin.

Ordizia

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Zazpikoloroa' ikuskizun berria

Goierriko ikastolek Urruñako ikastolaren alde antolatutako jaialdiaren barruan, urtarrilaren 8an, Majori kiroldegian, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen 'Zazpikoloroa' ikuskizun berria izango da. Aurten ere, bi saio izango dira, arratsaldeko 4etan eta 6,30etan. Sarrerak, Beasaingo Andramendi Ikastolan, Lazkaoko San Benito Ikastolan eta Ordiziako San Benito Ikastolan daude salgai.

Ataun

Kontsumo taldea martxan jartzeko hitzaldia

Abenduaren 15ean, arratsaldeko 6,30etan, Udaletxeko Batzar Aretoan, hitzaldia eskainiko dute Pedro Alberdik, EHNEko teknikariak eta Adrian Sanchezek, Biolurreko teknikariak. Hitzaldiaren helburua, Ataunen kontsumo taldea abian jartzea da, "garaian garaiko produktu freskoen eta ekologikoen salmenta herrian finkatzea".

Ordizia-Beasain

San Silbestre lasterketak

Urtea kirola eginez bukatzeko, abenduaren 31n, bi herri lasterketa izango dira, Beasainen eta Ordizian, bat goizean eta bestea arratsaldean. Beasainen, eguerdiko 12etan hasiko da 38. San Silbestre lasterketa, Gernika etorbidean. Ordiziakoa berri, 35. edizioa, arratsaldeko 6,30etan, Plaza Nagusitik abiatuko da. Aurretik, 5etan hasita, adin ezberdinetako haurrek ere korrika egiteko aukera izango dute.

ibaiondo

altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxa: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 16 72 57

Zurgindegia

ATEAK
LEIHOAK
ARMAIRUAK
ESKAILERAK
CNC LANAK
FENOLIKO LANAK
OBRAK
ERREFORMAK

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxe: **943 88 90 17**

NATXO
dietetika
BELARDENDA

KONTSULTAK:
NATUROPATA
AKUNPUNTOREA
DIETISTA

Nafarroa etorbidea, 5
Tel.: 943 16 21 10
BEASAIN



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 41. zenbakia 2011ko abendua

Gabon-Kantak



Kanta kantari



VI. Gabon kantu jaialdia egin dute Lazkaon

Gabon giroan bete-betean sartuta gaude. Olentzero ere opariak prestatzen ari da, etxez etxe opariak banatzeko. Olentzerok opariak ekarri aurretik dena den, kantuan egin behar izaten da. Abenduaren 24a izaten da gabon eskean edo kantuan aritzeko eguna baina Lazkaon, lehenagotik ere aritu dira. Goierriko Euskal Eskolak Kultur Elkartek antolatuta, VI. Euskal Gabon kanta jaialdia egin baitzuten abenduaren 10ean Areria Kulturgunean. “Gure guraso eta aitona-amonek garai batean kantatzen zituzten kantak ikastea eta ahaztuta gal-

tzen ez uztea” da jaialdi horren helburua, Goierrihartxori Goierriko Euskal Eskolatik esan diotenez. “Larunbat arratsaldean ordubete ederra pasatu genuen elkarrekin Gabon kantuak aitzakia hartuta. Eta igande arratsaldean zinean euskarazko film bat ikustera gonbidatu genituen bai partaideak, bai beraien lagun eta familiakoak. Asteburu oso-oso, beraz, euskaraz eta kulturaz blai”, gaineratu du.

180 kantari

Seigarren edizio honetan, 180 kantarik hartu zuten parte.

Haurren 18 talde eta helduen talde bat. Antolatzaileak gustura daude partehartzaile kopuruarekin baina, “gazteak eta helduak parte hartzera animatu beharko genituzke”, diote.

Hasieran lehiaketa izatekoa bazen ere, azkenean, jaialdia izan zen. Sariak, denentzat izan ziren. Goierriko Euskal Eskolako Mari Jose Madariagak azaldu du zergatik. “Hasieran lehia bezala planteatu bagenuen ere, aurkeztu diren guztiak saiatzen direnez ondo baino hobeto kantatzen eta jende aurrean kantatzera ausartzen direnez, guztiek mere-

zi dutela saria pentsatzen dugu. Horregatik, guztien lana entzuten gozatu eta denei eman diegu saria”.

Denetariko gabon kantak entzun ziren Arerian, ahots soilez edo musika tresnez lagunduta. Betiko abestiez gain, “beraiek sortuta bertsoak izan ziren tartetan, Lazkaoko musikari Patxeko Areso (Frantzisko Areso Tolosa) zenak sortutako Alaitasun handia ere kantatu zuten...”.






*“Aurkeztan
diren guztiak
saiazen
direnez ondo
baino hobeto
kantatzen eta
jende aurrean
kantatzera
ausartzen
direnez,
guztiak merezi
dute saria”*





7 aldeak

Beheko bi irudiren artean 7 desberdintasun daude. Aurkituko al dituzu?



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Katixa eta Kroko

Autorea: Jesus mari Olaizola 'Txiliku'

Ilustratzailea: Jon Zabaleta

Argitaletxea: Elkar

Orrialde kopurua: 80

Orain dela hogeai urte juxtu argitaratu zen liburu hau euskal letren ezinbesteko liburuen artean dago. Ohikoena hamar bat urteko irakurleei gomendatzea da, testuaren luzerak irakurle hasiberriak uxatzeko arriskua dagoe-lako. Irakurketa ozena praktikatzeko ohitura sana dutenek ordea, 5 urtetik aurrerako entzuleekin aritzeko aukera paregabea dute, pertsonaien izaeragatik eta gaiaren trataeragatik adin horietarako egokiagoa delako.

Muxuak

Autorea: Nanda Roep

Ilustratzailea: Marijke ten Cate

Itzultzailea: Aztiri



Argitaletxea: Tarttalo

Orrialde kopurua: 28

Lotara joateko ipuinak aukeratzeko orduan, kolore gozo-beroak aukeratu ohi ditugunean, gai atsegin eta maitekorak jorratzen dituzten album handi ederrak bilatzen ditugunean, gure haurrekin besarkatu eta igurtzika aritzeko aitzakiak bilatzen ditugunean... holakoetan "Muxuak" bezalako liburuak erreferente bihurtzen zaizkigu. Zabaldu ezazu albuma hau eta kontatu haurrari muxuak emateko dauden erak zeintzuk diren, eta emazkiozu, banan bana, denak... lokartu arte.

Aurkitu bikotea

Ondoko irudien artean bi bakarrik dira berdinak. Aurkitu itzazu.



Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

		5	9	3			7	
9	4				8			
3			4		5		6	8
1		4	6		2		3	7
6	8		7				2	4
	5		3	8				6
7	3	8			9	6	4	2
	6	2	8	4		3	1	
	1	9		6	3	7		

goierri^H artxoren
lagunak:

 **IRIZAR**





SEGURA: 2. Vista General.

Fot. «Austro-Alemana.» Oñate.

Segurari buruzko XX. mende hasierako posta txarteal

PREZIO BERRIAK

SEGURAN

2,3 LOGELA eta DUPLEXAK



Tel : 943 88 37 39
www.lamylazkao.com



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



*Eguberri hauetan
topa
Goierriko
txakolinarekin!*



Ekoizpen ekologikoa

Proba ezazu!

943 88 49 55



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29 Lakuntza (Nafarroa) Tel.: 948 57 60 68

Sukaldeak

Zeramikak

Erreformak

Bainugelak

Beheko suak



www.lopetegi.es


Barandiaran

■ berrikuntzak | ■ materialak



943 88 79 72 senpere 7 beasain | 943 18 78 52 eziolaza B-1 idiazabal

www.barandiaranzeramikak.com



UN11

**NORA JOAN
AUKERATU ZUK
GAINONTZEKO
EGINGO DUGU GUK**

abio@abio.es
www.abio.es



%5-eko
beherapena
BAREAK txartela
aurkeztuta



VIAJES
ABIO

BIDAIAK
943 805 311

GABONETAN EMOZIOAK OPARIRIK HOBERENA

ABENTURAK
EMOZIO HANDIKO BIZIPENAK
VIP ESPERIENTZIAK
GOLFA
LANDA-ETXEAK
HOTEL BITXIAK
NATURA-PARKEETAN EGONALDIAK
HOTEL XARMANGARRIAK
DISEINUZKO HOTELAK
FAMILIAREKIN EGONALDIAK
HOTEL URBANOAK
BARCELÓ HOTELAK, UPATEGIAK
ZAPOREAK
AUTORE SUKALDARITZA
PARADOREAK
EGONALDI GASTRONOMIKOAK ETA ENOLOGIKOAK
LASAITZEKO EGONALDIAK
SENTSAZIOAK BIZITZEKO EGONALDIAK
BRITAINIA HANDIAN EGONALDIA
ITSAS-BIDAIK
KARIBEA...

PlanB!

- 1 ABIO BIDAIKEN ESKURATU PlanB!**
24 bizipen baino gehiagoren artean aukeratu ahal izango duzu.
- 2 HARTZAILEAK BIZIPEN BAT AUKERATZEN DU**
Astero berritzen ditugu bizipenak eta www.planb.es webgunean guztiak ikus ditzakezu.
- 3 ERRESERBA EGIN ETA GOZATU ESPERIENTZIAZ**
Bizipena aukeratu ondoren egin erreserba 902 331 334 deituta edota www.planb.es webgunean.



ORAIN ZURE BIDAIAREN BROKERTZA JARDURIA EBANJUNEAN EGIN DEZAKEZU
www.abio.es